

Donostia, 2020ko otsailaren 21a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

CRISTOBAL BALENCIAGA PASEALEKUKO 72-80 EREMUAN BARANDA BAT JARTZEKO ESKAERARI  
BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko Aitzole Araneta bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikularekin bat etorrita, CRISTOBAL BALENCIAGA PASEALEKUKO 72-80 EREMUAN BARANDA BAT JARTZEKO ESKAERARI buruzko honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, OSOKO BILKURAN eztabaidatua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Bere kokapenagatik eta ezaugarri fisikoengatik, Igeldo auzoak arazo zehatz batzuk ditu, bertan bizi ez direnek batzuetan antzematen ez dituztenak. Hori dela eta, Igeldoko bizilagunak hainbatetan bildu dira Udal Gobernuarekin, auzoari buruzko aldarrikapen ugari aurkezteko.

Aldarrikapen horien artean, Cristobal Balenciaga pasealekuko 72. eta 80. zenbakien artean baranda bat ezartzeko eskaera dago. Espaloia garai bateko ezpondatik bereizteko nahi dute baranda, ezpondak aldapa eta altuera handi samarrak dituelako. Bizilagunek diotenez, izan dira erorikoak bertan, eta eremu arriskutsua iruditzen zaie, haurrentzat eta adinekoentzat, batik bat.

Marisol Garmendia zinegotzi ordezkariak batzordean azaldu zuenez, proiektuaren kostua 30.000 €-koa izango litzateke, baina 2020ko aurrekontuetan ez zen inongo partidarik gorde hura gauzatzeko; hortaz, ez dago aurreikusita urte honetan zehar gauzatu denik. Kontuan hartuta Donostiako inbertsioen aurrekontua 60 milioi eurotik gorakoa dela, 30.000 €-ko obra batek ez luke arazo izan behar Udalarentzat. Elkarrekin Donostiako kideek uste dugu auzoetako obra txiki horiek beste obra handi batzuk baino baliagarriagoak direla hiria eraikitzeko, haiek bezain ikusgarriak izan ez arren.

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hau aurkeztu dugu:

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko udalbatzak honako hau eskatu nahi dio Udal Gobernuari: ahal bezain laster baranda bat jar dezala Cristobal Balenciaga pasealekuko 72. eta 80. zenbakien arteko eremuan.

Sin.: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia Udal Taldeko bozeramailea*